



Idazki honen bidez, Zumaiako Udalak Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuari baimena eskatzen dio honako jarduketak egiteko:

Eskatzailea: Zumaiako Udala

Proiektuaren izenburua: **ZUMAIAN** UROLAKO ITSASADARREAN (ES2120004) NATURA ONDAREAREN BERRESKURAPENERAKO EKINTZAK 2026-2028

Gaia: Itsas-lehorreko jabari publikoaren ondasunen behin-behineko okupazio baimena eskatzea, Urolako itsasadarreko padurak eta Zumaiako udal barrutiko Santiagoko dunak kontserbatu eta berreskuratzeko jarduketak egiteko.

Proiektu hori 2019ean hasi zen Beduan eta Santiagoko dunan 2024an. Bi kasuetan Kostako Ministerioak lanak egiteko baimena eman zuen.

Proiektu honek bi ekintza mota ditu, bi helburu orokorrekin, Zumaiako bi gunetan.


(1) *Spartina maritima* espezieak osatutako *Spartina* zelaien berreskurapena Zumaiako paduran. Zumaiako Udalak 2019an abiatu zuen berreskurapen-proiektua, "KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA DEN UROLA ITSASADARREKO (ES2120004) PADUREN KONTSERBATZE ETA BERRESKURATZE LANAK (2020-2021)" izenburupean. Proiektu honek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen hirugarrenez, 2024-2025 urteetan lanak egiteko. Zumaian *Spartina maritima* espeziea berreskuratzeko proiektu honetarako, Busturiko hazi eta errizomak erabili ziren, dagozkien baimen eta onespenekin. Proiektu honekin aurrera jarraitzeko asmoz, 2024-2025 urteetan, 2023an egindako landaketetan (bi gune) jarraipen lanekin jarraituko da, eta *Spartina alterniflora* erauzten jarraituko da *Spartina maritima* landaketak egin ziren gunetan. Zumaian, Bedua eremuan, 2019ko amaieran, *Spartina alterniflora* espeziea 7 m² inguruko eremu batetik desagerrarazi zen. Eremu honetara eta inguruko beste batera (ikus plana) Busturiko (Bizkaia) *Spartina maritima* errizomak ekarri ziren. Bigarren eremu horretan ere *Spartina maritima* errizomak landatu ziren. 2022-2023 urteetan *Spartina maritima* haziak bildu ziren Busturian eta landareak lortu ziren, eta landare horiek bi eremu hauetan landatu ziren, aurretik *Spartina alterniflora* desagerrarazteko erauzketa-lanak egin ondoren. 2024eko eta 2025eko maiatza-urria bitartean, *Spartina alterniflora* erauzketa lanak egingo dira bi lan-eremu horietan. 2026, 2027 eta 2028 urteetan lan eremuetan *Spartina maritima* bertako espeziaren egoeraren azterketa egingo da eta *Spartina alterniflora* landare inbaditzailearen erauzketa.

Landa-lana egin aurretik, data zehatzak jakinaraziko zaizkie administrazio eskudunei.

Proiektu honen barruan, "Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren" esparruan egiten da lan. Horren ondorioz, Kostalde eta Itsas Inguruneari baimena eskatzen zaio, lan hauen luzapenerako eskaera honen bidez.

Egingo diren lanak hauek izango dira:

- a. 20-81-100-90015 partzelan gauzatuko da.
- b. *Spartina maritima* espeziearen egoeraren ebaluazioa egingo da.
- c. Horren arabera, landaketak egin diren eremuetako *S. alterniflora* desagerrarazteari ekingo zaio.
- d. Desagerrarazte guztiak eskuz egingo dira, ez da herbizidarik erabiliko, mareen eraginpeko eremua izanik, herbizidak urarekin zuzeneko kontaktua izango bailuke.
- e. Desagerrarazteetan, arreta berezia jarriko da bertako landare mehatxatuak eta bertako habitatak ez kaltetzeko.



1. Irudia. Proiektuaren aztergunea. Bedua.



2. Irudia. *Spartina alterniflora* erauzketa burutu zireneko eta *Spartina maritima* landaketak egin zireneko eremu zehatzak (morez)



(2) Bigarren helburuari dagokionez, espezie exotiko/inbaditzaileen desagerrarazte lanak egingo dira Santiago dunetan.

Landare exotikoak desagerraraztea ez da jarduera berria Zumaian. Gipuzkoako Foru Aldundiak zein Gipuzkoako Kostalde Ministerioak espezie exotikoak desagerrarazteko lanak egin izan dituzte Santiago dunan, hala nola, *Arundo donax*, *Yucca gloriosa* eta *Pinus pinaster*. Administrazioen artean, aipatzekoa da *Baccharis halimifolia* espeziea ezabatzeko 2006an hasitako proiektua, Europaren erakundeen babesa izan zuena LIFE proiektuaren bidez. Proiektu horren helburua Urdaibaiko, Leako eta Txingudiko paduretako aleak ezabatzea zen.

2008an, Zumaiako Udalak eta Zumaiako Natur Taldeak bultzatuta, boluntarioek *Carpobrotus edulis* espeziea erazten hasi ziren Zumaiako Santiago hondartzan, baina egun espezie horren presentzia ikusi da.

2011-2021 urteetan, Zumaiako Udalak *Yucca gloriosa* espezie inbaditzailea erazteko lanetan ere murgildu zen.

2024-2025ean Santiagoko duna landare exotikoek eta inbaditzaileak erazteko proiektua hasi zuen udalak eta 2026, 2027 eta 2028an lan horiekin jarraitu nahi du.

Jakina denez landare exotiko eta inbaditzaileen erazketak lanak urtez-urte jarraitu beharreko lanak dira lan horien eraginkortasuna bermatu dadin. Egun, oraindik Santiagoko dunan landare exotikoen (eta exotiko inbaditzaile batzuen) presentzia nabarmena da. Bertan ikus daitezkeen espezie exotikoen eta inbaditzaileen zerrenda hau da:

- 1- *Oenothera glazioviana*
- 2- *Yucca gloriosa*
- 3- *Pinus pinaster*
- 4- *Conyza sumatrensis*
- 5- *Lobularia maritima*
- 6- *Sporobolus indicus*
- 7- *Cotoneaster* sp.
- 8- *Pyracantha* sp.
- 9- *Carpobrotus edulis*
- 10- *Ailanthus altissima*
- 11- *Arundo donax*
- 12- *Buddleja davidii*
- 13- *Cortaderia selloana*
- 14- *Stenotaphrum secundatum*
- 15- *Pittosporum tobira*
- 16- *Robinia pseudoacacia*
- 17- *Tulbarghia* sp.
- 18- *Fallopia japonica*

Espezie zerrenda luzea izanik espezieiek lehenetsi dira eta ondorengoekin egin da lan:

- 1- *Oenothera glazioviana*
- 2- *Pinus pinaster* ale txiki-ertainak eremu zehatz batzuetan.



- 3- *Conyza sumatrensis* eremu zehatz batzuetan.
- 4- *Cotoneaster* sp.
- 5- *Pyracantha* sp.
- 6- *Carprobrotus edulis*
- 7- *Arundo donax*
- 8- *Buddleja davidii*
- 9- *Cortaderia selloana*
- 10- *Pittosporum tobira*
- 11- *Tulbarghia* sp.
- 12- *Fallopia japonica*

Baliabideek egonez gero *Yucca gloriosa*, *Robinia pseudoacacia* eta *Ailanthus altissima* espezien erauzketekin hasiko litzateke.

Egingo diren lanak hauek izango dira:

a. 20-81-100-90000 partzelan gauzatuko da.

b. Lan hauek 2026, 2027 eta 2028ko udaberri-udan egingo dira, maiatzetik urrira egingo dira, ahalik eta landare inbaditzaile gehien kentzeko. Urtero hiru erauzketa-kanpaina egingo dira.

c. Honako espezie hauek erauziko dira:

- 1- *Oenothera glazioviana*
- 2- *Pinus pinaster*
- 3- *Conyza sumatrensis*
- 4- *Lobularia maritima*
- 5- *Sporobolus indicus*
- 6- *Cotoneaster* sp.
- 7- *Pyracantha* sp.
- 8- *Carprobrotus edulis*
- 9- *Arundo donax*
- 10- *Buddleja davidii*
- 11- *Cortaderia selloana*
- 12- *Stenotaphrum secundatum*
- 13- *Pittosporum tobira*
- 14- *Tulbarghia* sp.
- 15- *Fallopia japonica*

Baliabideek egonez gero *Yucca gloriosa*, *Robinia pseudoacacia* eta *Ailanthus altissima* espezien erauzketekin hasiko litzateke

d. Ateratze guztiak eskuz egingo dira. Ez da herbizidarik erabiliko ingurumenaren ahultasuna eta ur-sistemetara duen hurbiltasuna dela eta.

e. Ateratako hondakin organiko guztiak erraustegira eramango da egun dagoen legedian oinarrituta.

f. Kartografia eguneratuko da ateratzeak egin aurretik. Eta, horrela, inbaditzaileen jarraipena egiteko balioko du, eta, aldi berean, ekintzen eraginkortasuna ebaluatuko da.

g. Arreta berezia jarriko da bertako landare mehatxatuen biziraupenean, beti bermatu behar baita ez zaiela kalterik eragiten.



3. Irdia. Horiz, Santiago lan-eremu orokorra.

Bestalde, urtero sentsibilizazio-kanpaina bat egingo da herritarren artean, eta auzolan bat egingo da (goiz edo arratsalde batez), eta data horietan loretan dauden espezie exotikoak kenduko dira (seguruenik *Oenothera glazioviana*, *Pinus pinaster* ale txiki-ertainak edo *Lobularia maritima* espezieak, erraz identifikatzeko espezieak baitira eta ez baitute arazorik sortzen ateratzeko). Auzolan maiatzetik azarora bitartean egingo dira Santiago.

Landa-lana egin aurretik, data zehatzak jakinaraziko zaizkie administrazio eskudunei.

Proiektu honen barruan, "Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren" esparruan egiten da lan. Horren ondorioz, Kostalde eta Itsas Inguruneari baimena eskatzen zaio, hurrengo eskaeraren bidez.

UTM koordenatuak

Orokorrak

Bedua orokorrak (zentroidea)

X: 0560950

Y: 4792747

Santiago orokorrak (zentroidea)

X: 0560920

Y: 4794407

Ekintzaren arabera (zentroidea):



Bedua zehatza:

- SIGPAC: 20-81-100-90015
- *Spartina* generoko landaketen kokalekua

2021-2023 *Spartina maritima* espezieraren landaketak. Eremu hauetan egingo dira jarraipenak.

(1) X: 0560940

Y: 4792763

(2) X: 0561182

Y: 4792725

2021-2023 *Spartina alterniflora* desagerrarazi den eremuaren kokalekua. Eremu hauetan egingo dira jarraipenak.

(1) X: 0560940

Y: 4792763

(2) X: 0561182

Y: 4792725

Santiago zehatza:

- SIGPAC: 20-81-100-90000
- Landaredi inbaditzailearen kartografia (zentroidea):
 - X: 0560920
 - Y: 4794407
- Landaredi inbaditzailearen desagerraraztea (zentroidea):
 - X: 0560920
 - Y: 4794407

Azalera osoa:

- *Spartina* soroek 1,54 ha hartzen dituzte Zumaiako Plan Bereziaren arabera, 0,95 ha inguru Beduan.

- Beduan *Spartina alterniflora* inbaditzailearen banaketa 0,914 hektarea ingurukoa da. Baina ortofotoei esker ikusten da *Spartina alterniflora* espezie inbaditzailearen azalera handitu egin dela.
- *Spartina maritima* espeziearen translokazioen eta landaketen bidez azaleraren mantentzea aurreikusten da (11,86 m²).
- Santiagon, espezie inbaditzaileen erauzketa egingo da 8,83 hektareatan.

Hori guztia dela eta, proiektu honen barruan, "Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren" esparruan egiten da lan. Horren ondorioz, Kostalde eta Itsas Inguruneari baimena eskatzen zaio, eskaera honen bidez.

AURREKONTUA

Aurrekontua urtez-urte zehaztuko da baina 2026ko aurrekontu totala honakoa da: 13.984 euro (beza barne).

ERANSKINAK

ARGAZKI-ERANSKINA

